

M.A.R.E.A. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure produktua udalerri, ingurumen-elkarte eta turismo jasangarria sustatzen duten erakunde publiko eta pribatuentzat zuzenduta dago. Ez dugu produktua publiko masiboarentzat diseinatu, baizik eta behar eta ezaugarri zehatzak dituzten erakundeei; instalazioaren kostuak eta robotaren potentzial osoa aprobeitzatzeko aukerak kontuan hartu behar dira.

Kasu bakoitzean, instalazioa egin aurretik aztertuko da robota garbiketa eta hondakin-bilketako beharretara egokituta dagoen, eta produktuen kostuaren eta lortutako onuraren arteko erlazioa egokia den.

Horrela, merkatu segmentatua identifikatu dugu, eta bezero-segmentu nagusiak hauek dira:

- **Udalerriak:**

Erakunde publikoak dira, hondartzak garbi eta seguru mantendu behar dituztenak. Haien ezaugarri geografiko eta sozioekonomiko nagusiak dira kostaldeko kokapena, populazio ertain edo handia eta kostuak txikiagoak izatea. Instalazioak leku estrategikoetan kokatzen dira, garbiketa eraginkorra eta energia berriztagarrien erabilera indartzea bermatzeko.

- **Ingurumen-elkarteak:**

Ekosistemak eta biodibertsitatea babesteko interesa duten erakundeak dira. Haien ezaugarri nagusia da ingurumenarekiko konpromiso sendoa eta sentsibilizazio soziala. M.A.R.E.A.k haien helburuak betetzen laguntzen du, hondakinak modu jasangarrian biltzen baititu eta kontzientzia publikoa sustatzen duelako.

- **Turismo jasangarria sustatzen duten erakundeak:**

Bisitarientzako hondartza garbi eta erakargarriak bermatu nahi dituzten erakunde publiko eta pribatuak dira. Haien ezaugarri psikografiko eta funtzionalak dira jasangarritasuna, berrikuntza teknologikoa eta irudi publikoa hobetzeko nahia. Instalazio ikusgarri batek turismo jasangarriaren irudia indartu dezake.



Segmentu hauek aukeratzeko arrazoi nagusia robotaren funtzionamenduaren berezitasuna da: plastikoak eta hondakin solidoak automatikoki biltzen ditu, hondartza mota desberdinetan erabil daiteke, eta energia berriztagarrien bidez funtzionatzen du, ingurune naturalari kalterik egin gabe.

Bezereen finantziario-beharrek ere kontuan hartu dira. Instalazioa ez da publiko guztientzako kostuengatik; horregatik, inkestak egin ditugu proiektuari buruz erabiltzaile potentzialen iritzia eta interesa ezagutzeko.



Emaitzek babes-maila handia erakutsi dute, eta herritarrek nominako 6 eta 10 euro artean laguntzeko prestasuna adierazi dute, M.A.R.E.A. bezalako irtenbide teknologiko jasangarriak sustatzeko interesa agerian utziz.

Azken helburua da M.A.R.E.A. proiektua epe ertainera udalerri, elkarte eta erakunde estrategikoetan sendotzea, eta etorkizunean esperientzia hau Europa mailan zabaltzea.

